



IKASTOLEN HEZKUNTZA PROIEKTUA

95eko Abendua



AURKIBIDEA

AINTZIN-SOLASA

1) IKASTOLEN AURKEZPENA	2
2) HEZKUNTZA XEDEAK	4
3) PEDAGOGIA HELBURU ETA HAUTUAK	4
- Ikasteko bide desberdinetan oinarritzen den pedagogia	
- Pedagogia aktiboa	
- Sentsuari lehentasuna emaiten dioen pedagogia	
- Ikastola, ikasleen zerbitzuan	
4) HIZKUNTZA HELBURU ETA HAUTUAK	11
- Erakaskuntza, euskaraz	
- Frantsesaren erakaskuntza	
- Eleaniztasuna	
- Euskalkiak	
5) EDUKINEN HELBURU ETA HAUTUAK	13
- Kontzeptuak eta gertakariak	
- Prozedurak	
- Jarrerak	
6) ESKOLATZEAREN ANTOLAKETA : ZIKLOAK	15
7) ANTOLAKETA DINAMIKOA	16
- Hezkuntza Komunitatea	
- Eskola Proiektua	
8) EBALUAKETA	18
- Ebaluaketa diagnosia	
- Ebaluaketa formatzailea	
- Ebaluaketa somatiboa	
9) BURURAPENA	19

ERANSKINAK

- SIADECO-k 1987 eta 1991 urteetan egin ikerketa sozio-linguistikoaren labur-bilduma
- Euskal eskolaren diseinua

AINTZIN SOLASA

Seaskaren hezkuntza eta erakaskuntza helburuen zehaztea eta gaurkotzea dira txosten honen helburuak. Seaskak gaur egun eta etorkizunean izanen dituen partaide guzietan (burasoak, langileak) zuzendua da.

Edukina, gogoeta sakonaren ondorioa da eta Seaskaren hautu berezietan oinarritua dago ; Euskal Eskolaren Diseinua (ikus eranskina), Frantziako Hezkunde Nazionalaren norabide legea (89ko Uztaila) eta berrikiago atera arauak kontutan hartzen ditu (95ko Martxoa).

Ikastola bakoitzak, norabide eta hautu hauetan oinarriturik eta tokian tokiko ezaugarriak kontutan hartuz, bere eskola egitasmoa egoerari egokitu behar dio.

Asmoa ez da praktika uniformizatzaile edo eredu bakarraren indarrean ezartzea, baizik eta diferentzietan zorian balioa emanez eta doakien tokia atxikiz, norabide horietarantz abiatzea eta xede hauen erdiestea.

Txosten honetan irakaskuntza orokorra dugu aipatuko soil - soilik ; hots, ama eskolatik bigarren mailaren bukaeraren zedarri diren azterketetara. Bistan dena, beste eredu batzuk (teknikoa, profesionala,...) ahalbidetuko dituzten egitasmoak gogoetatzen eta lantzen bermatu behar dugu, ahal dugun neurrian bederen. Gisa berean, behar beharrezkoa zaigu euskara azterketarako hizkuntza gisa onartua izan dadin lortzea. Alabaina, ikasleek eskolatzea euskaraz egiteko eskubidea dutenez gero, ezin onetsia da, ondotik etsaminak beste hizkuntza batean egitera behartuak izan daitezen. Gure ereduak prozesu osoa euskaraz eskaintzen du, beraz, etsaminak euskaraz egin behar dira.

I - IKASTOLEN AURKEZPENA

Ikastolak euskal eskola publikoak dira.

1 - Eskola :

Bizitzeko eta ikasteko gunea. Sortu zirenez geroztik, ikastolek, hainbat aldiz frogatu dute jakitatearen transmisioa-erainkuntza gauzatzeko eginkizuna osoki betetzen dutela. Horrez gain, erakutsi dute ere, gazteen formatzeko gaitasuna dutela : gazte sortzaileak eta elkartasuna zer den badakitenak, beren bizia, maila pertsonalean, gizartean nahiz lan arloan kudeatzen dakitenak.

2 - Publikoa :

Herri mugimenduak gauzatua eta mamitua.

Euskal kultura-nortasuna atxikitzeko xedea zuten buraso eta erakasleen ekimena izan zen ikastolaren sortzea ; hau ez dago alderdi politiko baten erranetara ez sinesmen baten menpe : eskola barneko bizia finkatzen duten arauen betetzeak du bermatzen bakoitzaren ideien eta sinesteen errespetua. Ikastolak erakaskuntza arloko zerbitzu publikoa eskaintzen du. Ikuspegi horren arabera, *publiko* eta *Estaduko eskola* ez dira sinonimoak.


Beren hurrei euskarazko heziketa eman nahi dieten guzietan idekia da, egitasmoa bultzatu eta bertan parte hartzen duen orori.

3 - Euskalduna :

Euskara erakaskuntza eta komunikazio hizkuntza da. Euskara ez da Europa eleaniztun honetan giza-banakoa aberasteko helburuarekin erakusten den hizkuntza soil bat, ez da kultura-ondarea atxikitzearen egindako nolabaiteko gehigarria. Euskara bizirik dagoen hizkuntza dugu.

Euskal eskola, gure kulturak dagokion tokia duelako bertan.

Hizkuntza eta zibilizazioa nortasunaren elementu eraikitzaileak dira. Hauei esker, mundua uler dezakegu eta geure burua hartan kokatu.



II - HEZKUNTZA XEDEAK

Seaskak hezkuntzari emaiten dio lehentasuna. Hezkuntza sistema ikasleen arabera eta ikasleentzat dago pentsatua eta eratua. Hezkuntza eskubidea ikasle bakoitzari bermatzen zaio. Ikastola bakoitzean, hezkuntza komunitateko partaide dira ikasleak eta, eskolan berean edo honekin harremanetan izanez, haren formakuntzan parte hartzen duten guziak.

"Ikastolan eskolatzeak haur euskaldunari betetasunera heltzen lagundu behar dio eta, halaber, arduradun eta herritar izaiten". (Seaskaren helburuak, 95 otsaila).

Ikastolak biharko emazte - gizonen formatzea du helburu, beren bizi pertsonal nahiz gizarte eta lan arlokoak kudeatzeko gai izan daitezen. Horrela, bada, hezkuntzak, gaztearen baitan

- * sortzeko gaitasuna,
- * herriko bizian parte hartzekoa,
- * berak bakarrik edo hezkuntza komunitatearekin elkarlanean ardurak hartzekoa,
- * kultura, arte eta kirol ihardueretan parte hartzeko gogoia eta tirria sustatu behar ditu.

Ikastolaren helburu da ezagutzen hedatzea, transmititzea eta eraikitzen laguntzea : ezagutza horiek oinarrizko kontzeptuetan hasi (pentsamendu konplexuaren garapena ahalbidetzen dutenak) eta Euskal Herriarekin edota Munduarekin loturik dauden ezagutzetara hedatzen dira.

Ikastolaren helburua da ikasle bakoitza ohar dadin lur batean sustraitua dagoela, hots, balore unibertsalekin batera, bere-bereak dituen baloreen ekarle den komunitate bateko partaide dela. Partaidetza horretaz ohartzeak segurtamena eta geriza ekartzen dio norberari. Kontzientzia horrek besteekiko idekiak izaita eskatzen du eta, bide batez, ekarpen baikor eta trukada aberatsen sortzeko parada ere eskaintzen.


Horrela, bada, ikastolan, gazte bakoitza entzuna eta lagundua izanen da, nork bere bidea asma dezan bere herrian eta munduan integratzeko.

III - PEDAGOGIA HELBURU ETA HAUTUAK

Pertsonaren garapen orekatsua honako ezaugarri hauei esker erdiesten da :

- * haren emozioen, afektibitatearen, mintzoaren, erritmo biologikoen kontutan hartzea,
- * arau eta balore batzuen inguruan antolatua den gizartean bizitzen ikastea ; honen lortzeko beharrezkoa da entzuteko, errespetatzeko, ideien eta praktiken erkatzeko gai izaita eta elkarlanerako eta elkartasunezko jarreraren garatzea,
- * ezagutzen eraikitzea,
- * psikomotore garapena eta gorputzaren heziketa,
- * sormenaren eta jakinminaren garatzea,
- * lan-metodoen barneratzea,
- * ikasteko estrategien eta eskolako erritmoen kontutan hartzea.

Ikastolak pertsonaren garapen horretan parte hartu nahi du, haurra eta nerabea izakitzat hartuz.



Izaki horren bilakaera, berak bizitakoan, bere esperentzia fisiko, afektibo, kognitibo eta sozialetan sustraitzen ahal da soil - soilik.

I Ikasteko bide desberdinetan oinarritzen den pedagogia :

Ikasgelara datorren haurra izaki bat eta bakarra da ; dagoeneko hainbat esperientzia bizi izan dituen izakia : bere inguruaren eta hartan gertatzen direnen ulertzeko eta barneratzeko molde berezia duena ; sentsibilitate, nortasun eta izaera bereziak dituena. Ondorioz, ikasle bakoitzak bere ikasteko moldea du, guhaurek, helduok, geurea dugun bezelaxe. Zein izan daitezke diferentzia horiek ?

- Batzuek eskema edota irudi bat beharko dute ulertzeko ; beste batzuek irudia laguntzen duten iruzkinen entzutea nahiago izanen dute,

- Batzuek gogoz ikasi behar duten testuaren "argazkia" egingen dute ; beste batzuek beren ahotsa "grabatuko" dute testuaren irakurtzerakoan,

- Batzuek xehetasun bakoitza bereizirik ulertu beharko dute, ondotik orokortasunera heltzeko ; beste batzuek hastapenetik ikuspegi orokorraren edukitzea nahiago izanen dute, geroago xehetasunen banazka aztertzeko,

- Batzuek bakartasuna beharko dute lan egiterakoan ; beste batzuek taldeko elkar-ekintzaren beharretan izanen dira,

- ...eta horrela, zerrenda luzatuz joan daiteke.

Bestalde, nork bere lehentasunak ditu baliabide desberdin horien erabiltzerakoan :

- Ikasle batek eskema bat beharko du, "argazkia" egingen du, xehetasun bakoitza bereizirik ulertuko du eta nahiago izanen du bakarrik lan egin,

- Beste batek eskema bat beharko du, aldi berean "grabatuko" du, lehenik orokortasuna ulertu eta taldean lan egitea hobetsiko du,

- Hirugarren batek iruzkinak beharrezko izanen ditu, "grabatuko" ditu, xehetasun bakoitza bereizirik ulertuko du eta bakarrik lan egitea nahiago izanen du.

Eta honela jarraikiz, aldagai guziak kontutan hartuz, konbinazioak ugariak dira. Konbinazio honi deitzen diogu "estilo kognitiboa", "ikas-estrategia" edo "ikas-soslaia.

Ikasgelan, beraz, ikasle desberdinez bestalde, bere estrategia duen erakaslea ere badago. Erakasleari dagokio, ez ikasle honen edo bestearen soslai batean edo bestean kokatzea (lan erraldoia litzateke), baizik eta hurbilpen moldeak, euskarriak, kursoaren antolaketa-moten ugaltzea, ikasle bakoitzak bere bidea atzeman, bere baitan duena adierazi eta ezagutza eraiki dezan.

Bistan da, "X" metodoa edo "Y" materialaren erabiltzeak (hauetan, xedeak, aintzinatzeak eta iharduerak urraska eta alde zuzenetik zehaztuak eta osatuak baitira) laguntza gaitza ekar diezaioke erakasleari. Halere, uste baina lehen sortuko zaizkio arazoak, ikasleak lanean dihardutelarik baitezpadakoak diren behaketak burutzen ez baditu. Behaketa hauek erakutsiko diote zein bide har, nolako zuzenketak egin, zein diferentzia emenda.

Ikasteko bide desberdinetan oinarritzen den pedagogiaren erabiltzeak, bada, erran nahi du ikasleari hainbat bide desberdin proposatzea beharrezkoa bezain posible dela. Erakaslearen helburuak argiki eta zehazki finkatuak izanik ere, hautu horiek haren sentsibilitatearen eta formakuntzaren arabera izanen dira, halaberrez, eta ikas-gelako errealitatearekin topo egingen dute ardura. Saioaren burutzerakoan, erakasleak zeregin desberdinak proposa ditzake ikasleek bakarka edo talde txikietan egiteko : gizabanakoan ibilmolde eta beharrei emanen zaie garrantzia. Horrela, une jakin batean ikasle-taldea banatua da, eta bakoitza erakasleak ezarritako eginbeharrak betetzen ariko da, bakarka edo taldean ; bata eskuztatzen ariko da, beste batzuek saiakuntza bat egingen dute, beste batzuek problemak, beste batzuek irakurri, beste batzuek irudikapen grafiko bat egiten saiatuko dira eta abar... bide desberdinak sinkronikoki uztartuz.

Saio batean edo batzuetan, erakasleak kontzeptu edo nozio baten aztertzeari ekinen dio, haren itxura desberdinak erakutsiz ; ikasle-taldeari iharduera berak proposatuko dizkio, baina denboran aldatuz joanen direnak : horrela ikasle-taldeak arazo-egoera bati aterabidea bilatzeari ekin diezaiolke, non norberaren egintza eta gogoetak eta taldearenak batzuk besteei uztartzen baitzaizkie, gero, ondoren, taldeko eztaba-idea eta sintesira iraganenez, azkenik idatzizko formulazioarekin bururatzeko (ikasten aritu diren kontzeptuaren formulazioa, adibidez). Honela, ikasle bakoitzak :

- banaka edo taldean lan egin ahal izan du eta egin du,
- bere proposamena, hitzez edo irudien laguntzaz argudiatu eta frogatu du,
- testu-inguru jakin bateko egoera zehaztetik (problema baten aterabidea) egoera abstraktura doan bidea egin du, definizioa egiterakoan.

Ordurako, zenbait ikasleek jakitate berri hau ulertu eta barneratu du, beste zenbaitek oraindik ez. Erakasleak ikasle-taldeari eska diezaiolke definizioaren adibide batzuk atzeman ditzan. Edo alderantziz, kontra-exenpluak, hots, iduriz definitiotik hurbil egon litezkeen adibideak, baina, sail horretan sartzen ez direnak.

Demagun, CMI-eko edo seigarreneko erakaslearen xedea perpausu bateko aditzaren funtzioa aurkitzea dela. Honela formulatua dago :

"perpau batean, aditza da : denbora zehazten duen hitza eta egoera edo ekintza adierazten duena".

- *Gatuak maitakorra iduri du.*
- *Gatuak sagua janen du.*
- *Xoriek abesten zuten.*

Perpau hauek definizioa ilustratzen duten adibideak dira, azpimarraturiko hitzek bi baldintzak betetzen dituztelako (denbora eta egoera edo ekintza), beraz, azpimarraturiko hitzak aditzak dira.

- *Xakurraren sainga beldugarria da.*
- *Loreak ederrak izanen dira bihar*

Perpau hauek kontra-exenpluak dira, azpimarraturiko hitzek ez baitituzte bi baldintzak betetzen, beraz, hitz horiek ez dira aditzak.

Talde-ikerketan honen ondotik, erakasleak ariketak proposa diezazkieke ikasleei : trebatzeko edo/eta bakoitzaren behar berezietara egokituak izan daitezkeenak. Honela, ikasle bakoitzaren lorpen-maila ebalua lezake, ondoren, hurrengo sekuentzien prestatzen hasteko. Definizioa gogoz ikasteko galdeginen die horretarako nor bere estrategia erabiliko duelarik.

Gisa horretako eginmoldea balia daiteke kimika arloan lizeoan. Kimika, formulak gogoz ikastera edo erakasleak egindako esperientzietara mugatzen bada, laster aspergarria bilakatzen da. Aldiz, erakasleak honelako galdera egiten duelarik : "Zenbait ekaiak, gasak adibidez, atomo kopuru bera duten molekulez osatuak badira ere, ezaugarri desberdinak dituzte (beraz erabilpen desberdinak). Nola liteke hau ?"

Materiala ikasleen eskutan utziz (atomoen iduriko bolatxoak, eta langetak haien arteko loturen adierazteko), haiek, banaka, ondokoekin eztabaidatuz, molekulak eratuko dituzte atomo osaketa desberdinekin, oinarritzko formula bereko, baina, garatuz gero, formula desberdineko isomeroak aztertuz.

Adibide hauetan ikas-taldeak diakronikoki burutzen ditu egin beharreko urratsak : ikasleek hainbat ekimen desberdin egiten dituzte nozio batez jabetzeko.

Pedagogia ikuspegi honi hartze duen balorearen emaita, ikasle bakoitzaren, hots, izaki bederaren garrantziaren azpimarratzea da, haren errespetatzeko nahiaren adieraztea.

2 Pedagogia aktiboa :

Ikastolak ikasle bakoitzari nortasunaren eraikitzea eta bere ahaleginez eskuraturiko jakitatearen lortzea bermatu behar dizkio. Alabaina, egintzak (fisikoa, intelektuala) dio emaiten sujetari, ulertzeko, sortzaile izaiteko, egokitze, aldatzeko ahalmena.

Gertakari beraren, objektu beraren aintzinean, pertsona bakoitzak ulertzeko molde desberdina du. Ulertzeak bi alderdi ditu :

- alde batetik, oharren fisikoa dago ; sentsuen organoei hertsiki lotua dena (ikusmena, entzumen, hunkimena, usaimena, dastamena). Objektuaren ezaugarri fisikoei buruzko berriak emaiten ditu,
- bestetik, interpretazio logikoa dugu. Honen bidez, gizabanakoak objektua bere ezagutzaren halako erregistrotan barneratzen, gainerateko objektuekin erkatzen eta haren azalpena emaiten du.

Benetakoa ala faltsua, sujetu-ikasleak ontzat hartuko du azalpena, harik eta sujetuak berak haren baliotasuna frogatzeko entsegua egin dezan arte.

Hona hemen INRP-ko (Pedagogia Ikerkuntzarako Instituto Nazionala) ikerle-talde batek ama eskola-ko gela batean, 5-6 urteko haurrekin egin entsegua.

Hastapenean, erakasleak uraren zikloa azaldu zuen sinpleki, irudiez baliatuz, eguzkiaren berotasunak lurrunketan duen garrantzia erakusten zuten irudiak aurkeztuz. Ondotik, erakaslearen laguntzarekin, haurrek esperentzia bat gauzatu zuten : ura berotu eta irakitera utzi zuten eltze batean. Bertatik ateratako lurruna ur tantetan eraldatu zen estalkian.

Honela haur guzietan ulertu eta ikusi zuten beroak uraren lurrunketa eragiten duela.

Erakaslearen azalpenei esker, elkarrekin eginiko esperentzia dela medio, haurrek ezagutza berri bat ikasi eta barneratu ote dute ? Eguneroko bizian erabiltzeko gai ote dira ? Hau da ikerleek beren buruei egiten zieten galdea.

Erantzuteko bigarren saio bat antolatu zuten.

Erakasleak gelako panpinen ileak idortu zituzten ile-idorgailuak erabiliz.

"Baina, nora joan da ura ? Ilea zergatik ez dira bustiak orai ? galdetu zuten erakasleak. Batzuek, segur eta fida, ura ile-idorgailuan zegoela pentsatzen zuten : "hautsa hartzen duen aspiragailuarekin bezala gertatzen da, ile-idorgailuak ura hartzen du". Beste batzuek, besteak bezain segur, ura panpinen buruen barnean zegoela pentsatzen zuten. "Ile-idorgailuaren haizeak buru barnera bultzatu du ura".

Ile-idorgailuak desegin behar izan zituzten, panpinen buruak askatu, alperrikako ikerketen ondoren haurrek egiazko galdea egin zezaten : nora joan da ura ? Zergatik ezarri zuten dudatan lehen esperentzia -urteetan landuriko azalpena, honek gertakariaren ulertzeko gaitasuna emaiten zielarik ?

Lekukotasun honen ondotik, eta ondorio bertsuetara heldu diren beste hainbesterekin, argi eta garbi ikusten da ikaslea ez dela untzi huts bat, erakasleak bere jakitatez betetzen ahal duena...

Ezagutza berria ez da ezagutza zaharren gainean metatzen. Ezagutza berri orok jadanik hor dagoena berrantolatzen du : ikasleak osaturiko azalpena, bere pentsamoldea edo ulertzeko manera, hots, bere errepresentazioak (pedagogian eskuarki erabiltzen den hitza).

Honela, kontzeptu berriak aurkezten dituen bakoitzean erakasleak zuhur jokatu behar du ; ikasgaia ikasleen heinekoa izaitzekotan, ez gorago ez beherago, ebaluaketa-diagnosia egiterakoan bi galde hauek egin behar lituzke : zer dakizue "...z ? Zer erran nahi du zuentzat ? Zer orroitarazten dizue ? Nola dakizue hori ?

Ikasleak esperientzia berriak bizi ditu etengabe, eskolan nahiz eskolaz kanpo.

Berrikuntzei buru egin behar die eta, bere errepresentazioak moldatu ezean, ezinezkoa izanen zaio oraino ezezagunak zaizkion horien barneratzea. Jadanik "hor dagoena" aski ez delarik, erabilgarria ez delarik da aldaketa abiatzen eta ikasketa gauzaten. Pentsamoldea konplexuagotzen da eta bide berriak idekitzen zaizkio.

Garai batean pedagogia aktiboa "ikasle aktiboari" lotzen zitzaion, "ikasle-pasiboari" kontrajarriz. Kurtso magistralaz kanpoko zenbait teknika erabiliz gero, hots, ateraldiak, ikusentzunezkoak, gutunak, lana talde tikitari egitea, eta abar...aski zen erabilpen hau pedagogia aktiboa zela pentsatzeko.

Gaur egun, pedagogia aktiboak praktika konplexuagoa galdegiten du, hitz gutitan laburbil daitekeen pentsamolde filosofiko batek bideratua eta sustengatua : ikaslea da ikasten duena, eta inork ez dezake egin hori bere orde. Erakasle batek erakasten duelarik, ikasleak ez dira baitezpada ikasten ari : bi logikak alde-rantzizkoak dira. "Aktibo" izenondoaren tokia "egile"-k hartzen du. Gaztea egile da bere formakuntzan, egile bere egitasmoan : horrek erran nahi du, parte hartzen duela, engaiatzen dela, bera dela jokalaria nagusia.

Pedagogiaren praktika zenbait ardatzen inguruan eraikitzen da :

- Ikasleen errepresentazioak argiki erakusten dira.
- ikasleek eskuztatu behar dituzte gauzak, esperimendu, ihardun ; hala ere, "egiteagatik egitea" ez da aski : ikasleek zer, zergatik eta nola egiten duten gogoetatu beharko dute. Egoera horretatik bildu ezagutza hainbat testu-inguru desberdinetan erabiltzen ahalko dute.
- Ikasleek arrazointzen, argudiatzen, frogatzen dute ; horretarako, ikaskideekin osatu lan-taldeak antolatzen dira, gataska sozio-kognitiboa azaleratu eta emankorra izan dadin.
- Huts egitea haizu da, eta harek pedagogia formatzailean duen balioa azpimarratzekoa da , hutsa aztertuz dute erakasleek (eta ikasleek) egoera ulertuko eta, bide batez, ikaslearen pentsamenduaren mekanismoak.
- Ikasleak ebaluaketan parte hartzen du ; ebaluaketa formatzailea ikasketa prozesuaren barneko zerbait da.
- Erakaslearen laguntzari esker, ikasleak bere ikasteko estrategiak ezagutzen eta aberasten ditu.

3) Sentsuari lehentasuna emaiten dion pedagogia

Haurra, nerabea, motibazio haundiko izakia da, jakin-minez betea, biziaren, harremanen, ezagutzen egarri dena. Ez da besteen erranetara dagoen kontsumitzaile hutsa ; bere gaitasunak ez ditu garatzen kontsignen ulertzeko eta betetzeko bakarrik...

Egiten duenari sentsua eman behar dio ikasleak. Bere betebeharreko eskola-garaian, testu-inguru guzietatik at dauden ikasketa-egoerak bizi ditu usu ; aurkezten zaizkion errealitateen arteko loturak egiteko zailtasunak ditu (ikus ama-eskolako uraren lurrunketa), eta erakasle eta Institutuzioaren xedeak ezin ulertuak egiten zaizkio.

Hainbatetan entzuniko : "berantago baliagarri izanen zaik/n" delakoa, bere aitatxi-amatxien jakinmina sustatzeko balio zuena, gaur egun antzua da. Dagoeneko eskola ez da ezagutzetara heltzeko bide bakarra. Haatik, eskolaren zeregina ezin ukatuzkoa da pentsatzen ikasteari, galdeak egiten ikasteari edota ikasten ikasteari dagokionez.

Ikastola bakoitzeko pedagogia-taldeak eta erakasle bakoitzak beren irudimena eta sormena garatu behar dituzte, egoeren sortzeko eta antolatzeko, iharduera ludiko edo enigmatikoen proposatzeko. Hauetan, ikasketa-helburu zehatzek eginkizun bat edukiko dute ; ikasleak sentsua emanen die, eta hauek

barneratzean ahalmen handiagoa lortuko du munduaren ulertzeko eta hartan eragina izaitzeko.

Ikastolak biharko gizon-emazteak formatzen ditu. Hala ere, formakuntza hau egun gauzatzen da eta oraialdiko sentsua ukan behar du. Horretarako, ikasleari, biziki egokia izan dakioke proiektuaren pedagogia, edo hobeki erraiteko, ikaslea bere proiektuaren asmatzaile eta bideratzaile izaiten lagunduko duen pedagogia (epe laburreko proiektuetatik hasi eta epe ertainekoetara).

Nork bere asmoen aurkeztea, testuinguru batean kokatzea, bakoitzaren helburuen finkatzea, balizko norabide baten egituratzea, gauzatzea, aldatzea, ebaluatzea... Ez ote da hori proiektua bizitzea? Ikaslearentzat sentsuz beteriko proiektua da eta hura gauzatzean ikaslea egile bezainbat asmatzaile ere bada.

Gazte bakoitzari, ikasle-talde bakoitzari, eskola bakoitzari dagokio bere proiektuaren biziaraztea, interesguneen arabera, dauden edo sortzekoak diren ahalbideen arabera, lankideak eta beste. Moldeak ugarriak dira: gutunak, baratzeko lanak, egunkari baten erredakzioa, antzerki taldea, Errobiko ekosistemaren aztertzea, Durangora egiten den ateraldia, lantegi baten ikustera joaitea, eta abar. Norbaiti idatzi, haren erantzuna irakurri, lur moten kalitatea aztertu, orrialde baten maketa nola egiten den ikasi, ibilaldi bat egiteko erabakiak hartu, plano bat irakurri, kutsadura heinaren aztertzeko esperientziak egin eta abar... Bistan da, iharduera horietan irakurketa, idazketa, kalkulua eta natur zientziak lantzen dira, baina, bide batez, analisatzeko, sintesien egiteko, erredaktatzeko, bildumen egiteko, konparatzeko, egoeren aintzintzeko, hipotesien egiteko gaitasunez ari gara.

Erakaslearen eginkizuna bikoitza da: lehenik eta behin, proiektuaren kudeantza eta bururaino eramatea ez da lan tiki; bestetik, ikasketa "akademikoak" (programa) egiazki burutuak izan direla egiaztatu behar du, hots, ikasleek beren errepresentazioak aldatu dituztela.

Proiektuan oinarrituriko pedagogia hau ez da gauzatzen ahalko, disziplinak edo ikas-arloak elkarren artean osatzen ez badira; alabaina, proiektu horren barnean arlo desberdinak kokatzen dira (hizkuntza, historia-geografia, matematika eta abar...). Argiki ikus daiteke arlo hauek guztiak agertzea ez dela beharrezko, eta ardura ezinezkoa dela. Lehen mailan, gela bakoitzerako erakasle bakarra izaitzarekin antolaketa mailako zenbait arazo baztertzen dira. Bigarren mailan, aldiz, proiektu batek 2, 3 edo 4 erakasle beharko ditu; hauek oinarritzko ikasketen programa zehaztu beharko dute, antolaketa koherente bezain zorrotza finkatu. Hala ere, lan egiteko molde honek ikasle eta erakasleen motibapenari eragiten dio, bururaino heltzeko nahikundea eta, beraz, ikasteko gogoia emendatuz.

4) Ikastola, ikasleen zerbitzuan

• Ontsa errezibitzea

Ama ikastolak edozein haur errezibitzeko prestatuak izan behar dira. Bi urteko haurren errezibitzeko benetako hezkuntza-politika bati ekiten zaio, horretarako behar diren bitartekoak ezarriz. Ama-ikastola funtsezko urratsa da haurarentzat, bai lehen ikasketen egiteko edota hizkuntzaren bereganatzeko.

Premia bereziak dituzten haurren errezibitzeko ere, joan arau galdea emendatzen ari denez gero, benetako hezkuntza - politika bat gogoetatu beharrekoa da eta egoera horretan diren familiekin bideratzekoa.

• Zailtasunen eta desberdintasunen aurka jokatzeko :

Ikasleen arteko diferentzia sozialak eta kulturalak, ikasteko haien artean direnak kontutan hartzen ez diren artean, ez dezakegu erran ikasle guzkiek xantza bera dutenik: engainua litzateke. Zailtasun horietarik zenbait desagertuko eta leunduko dira, edo bederen ez dira porroteraino helduko, erakasleak formakuntza sendoaren jabe eta burusoak informazio sakonaren jabe izanez, diferentzia horiei dagozkien tratamendu desberdin eta anitzak eskaintzen ahalko dizkietenean.

Zailtasunek sorburu ugari dute :

Batzuk zailtasunak kausitzen dituzte beren adineko ikasleekin lanean artzeko, heldutasun intelektual ez dutelako oraindik erdietsi.

Ifrentzuz, bere adineko ikasleek baino heldutasun garatuagoa duten ikasleek.

Erakaslearen erakasteko estrategiaren eta ikaslearen ikasteko estrategiaren arteko desadostasuna

Familiako gora-beherak.

Ikaslearen jitezko ezaugarriak direla medio.

eta abar...

Kasu hauek mingarriak dira denendako, baina, lehenik, egoera jasaiten duen ikaslearendako. Aterabidea ez da ping-pong-ean aritzea eta porrotaren erantzukizuna batzuek besteei leporatzea (urrunago joanez, hogena). Baitezpadakoa da diagnosi sendoaren egitea, eta behar izanez gero arlo horretan aditu diren kanpoko kideen laguntza ere eskatu beharko litzateke. Ondotik, alde guzien artean, ikaslea ere, proiektu pertsonal zehatzak (edo hitzarmena) antolatzen eta gauzatzen dira. Honen berme erakasleak dira pedagogia eta eskola arloan ; eskolaz kanpoko bizian, burasoak.

• **Formakuntzan diren gazteen eskubide eta eginkizunak**

Eskubide eta eginkizun horien gauzatzea gizarteko partaide izaten ikastea da;

Ikasleak argiki ikusi behar du zer-nolako loturak dauden berak burutu duen proiektuaren eta erakasleek finkatzen dizkioten pedagogia helburuen artean :

Biziki hurbila izan behar du haur gaztearentzat ; adibidez : errezeta baten egitea, arazo-egoera bali buru egitea, eta abar...

Orientazio proiektua lizeoko ikaslearentzat.

Erakasleek molde errealista batez zehazten dituzte xedeak, ikasleei azaltzen dizkiete eta bildumak ardura egiten dituzte elkarrekin. Gisa horretan, ikasleak, finkatu zaizkion helburuetan bere burua kokatzen jakinen du, eta eginahalak zein arlotan egin ere argiago ikusiko.

Bigarren mailan, laugarrenean hasiz ahal bada, eta lizeoan, ikasleek eskolako, unibertsitateko eta lan arloko orientazio proiektuak egiten dituzte beren nahien eta gaitasunen arabera. Horretan, buraso, erakasle, orientazio-ahokularien eta profesional trebatuen laguntza ukanen dute. Lantegietan egin ikastaldiek ere, beren hautuen egitera lagun ditzakete.

Ama-eskolatik lizeoko azken urtera arte gaztearen eta hezitzailearen arteko harremanak lehentasuna izanen du. Gaztea partaide gisa hartua da eta, hari buruzko edozein erabaki hartu aintzin, harekin elkarriketatuko da hezitzailea. Elkarrizketa motak ugariak dira : buruz buru, ikas-gelako kideak bilduz edota biltzar orokarra ikasle guziei dagokien gaia delarik. Elkarrekiko biziaren ezaugarri hau tokian tokiko ikas-tolen proiektuetan zehaztua izanen da.

Kolegio-lizeoan (ikus, 89ko norabide legea) aniztasunaren errespetuan eta neutralitate printzipioan oinarrituz, informazio eta adierazpen askatasuna dute. Askatasun honen gauzatzeak ez dio kalterik egin behar erakaskuntza iharduerei. Ildo honetan, afitxak ezartzeko informazio taulak egonen dira ikas-geletatik kanpo.

Lizeoan, eskolako biziari (eskola proiektua, barne araudia, egintza sozio-educatiboak) eta eskolako lanari (ordutegia, sustengu moldeak, orientazio prozesuak) dagozkien gaiez gela guzietako ikasleen iritzia kontutan hartzeko, ikasleen ordezkarien kontseilua bilduko da, eskolako zuzendariaren gidaritzapean. Ikasturtearen hastapenean, ikasle-ordezkariak betekizunari buru egiteko prestatuak eta formatuak izanen dira. Bigarren Mailan, adibidez, ikas-gela bakoitzean oren bat hartzen da konzertaziorako, erakasle batek kudeaturik. Horrela, ikasleak eskolako biziari eta lanari buruzko arazoez mintza daitezke. Orokorki kolegioari dagozkion ekimen edo erabakien hartzerakoan ikas-gela guzietako ordezkarien bilkurak antolatzen dira, zuzendariaren edo haren ordezkariaren ardurapean.

IV - HIZKUNTZA HELBURU ETA HAUTUAK

"Ikastolako erakaskuntza hizkuntza euskara da. Ikastola euskal nortasunari loturiko eskola dugu, ingurumenari idekia, pedagogia arloan bere berezitasuna atxikiz. Berreuskalduntze prozesuan ikastola ezinbestekoa da. Euskararen ofizialtasuna Seaskaren xede bat da" (Seaskaren helburuak, 95eko otsaila);

1 - Erakaskuntza euskaraz.

Ikasketak eta formakuntzak oro euskaraz egitea, ikastola guzien hautua da.

Lehen Maila bururatzean, sortzez euskaldun direnek eta ez direnek euskara berenagatua dute : ahozko eta idatzizko ulermen-adierazpenak garatuak dituzte. Ondoren heldu diren ikasketen euskaraz segitzeko gaitasuna izaitzez gain, gai dira euskara beren biziko testu-inguru desberdinetan erabiltzeko eta adinari dagozkion erregistro guzietan;

Pertsonaren garapena, lorpen linguistiko eta intelektualak ez dira bururatuak 11 edo 15 urtetan. Eskolatzea ildo koherente bati jarraiki behar zaio, gure ustez lizeoaren amaieran bururatzen dena.

Euskara, komunikazio hizkuntza gisa, ikastolan nahiz ikastolaz kanpo erabilia izaitza garrantzitsua da, zinez. Baina hori ez da gauzatzen ahal burasoen eta erakasleen eskuhartze aktiborik izan ezean : eremu hori irabazi eta betetzeko eginahalak egitea ikastola proiektuaren atal nagusietarik bat da. Atal horrek tokian tokiko errealitatea, beharrak zein aberastasunak kontutan hartuz, zehazki adieraziko ditu, ikastolan eta honen inguruan euskararen biziartzeko burutuko diren egintzak.



2 - Frantsesaren erakaskuntza.

Euskara ikasle guzien lehen hizkuntza bilaka dadin etengabeko eginahal jarraikia egiteaz gain, frantsesaren ikasketa ere segurtatzen du ikastolak. Lehen mailan, frantsesaren ikasketa CE1etik CM2ra mailakotua da.

Bigarren Mailan frantsesari eta frantses literaturari eskaintzen zaien oren-kopurua frantses kolegio edo lizeoetan eskaintzen zaien oren-kopuru bera da.

Lehen Maila bururatu eta, ikasketetako orientazio-une bakoitzean, ikasleek bi hizkuntzak menderatzen dituzte eta beren eskolatzeari jarraitzen ahal zaizkio hautaluko duten sisteman. Hala ere, argi da eskolatzeko mailako edozein aldaketak hartara prestatzea eta egokitzea galdegiten duela.

Gure aldetik, antolatu dugun sistemaren helburua da ikasle guziaz Bigarren Mailaren bururatzera arte laguntzea, euskara izanez erakaskuntzako lehen hizkuntza.

3 - Eleaniztasuna.

Bestalde, beste eskualde eta herriekiko idekiak diren gizon-emazteak formatzekotan baitezpadakoa da haien hizkuntzen ikastea eta haien zibilizazioen ezagutzea. Horretarako, euskara eta frantsesaz gain beste bi sail idekiak daude : espainiar hizkuntza eta zibilizazioa, ingeles hizkuntza eta zibilizazioa.

4 - Euskalkiak.

Tokian tokiko euskalkien ezagutzeak gazteei eskolaz kanpoko komunikazioa erretzen die, beren biziguneetan. Ikastolak helburu gisa hartzen du ikasleek euskalkiak beregana ditzaten.

Euskara batuaren ikastea ere, Seaskaren helburuetan da, Euskal Herrian zehar ibiltzeko komunikazio ahalak emendatzen baititu. Idatziaren mundura sartzeko, ezagutza literario eta zientifikoaren erdiesteko, euskararen normalizatzetik iragan behar da.

Batuaren eta euskalkiaren artean oreka bilatu behar da, pertsonaren eta Euskal Herri Mailako komunikazioaren beharrak kontutan hartuko dituen.

Labur bilduz erraiteko, nabarmena da euskal herritar batek zenbait hizkuntza menderatu behar dituela, lehena berea izanik, haatik : euskara. Gure zibilizazioaren mamia atxikitzen duen hizkuntza honek espazioan eta denboran kokatzen gaitu eta nortasuna emaiten digu.



V - EDUKINEN HELBURU ETA HAUTUAK :

Ikastolak bere helburuetan du ikasle guzien gaitasun intelektual, sozio-afektibo, fisiko eta artistikoen ontsa garatzea eta beregain hartzen du haiei oinarritzko ezagutza multzo baten eskaintzea.

Ikastolako profesionalendako, beste dokumentu batean, xeheki azaltzen dira ikas-arlo bakoitzean ikasleek eraiki behar dituzten ezagutzak eta gaitasunak.

Atal honetan, komenigarri da pedagogia arloan erabiltzen diren hitz zenbaiten erran nahiaren zehaztea.

Behin eta berriz errepikatu dugu helburua ez dela ezagutzen metatzea, pilotzea ; aitzitik, ikasleek gogoetatzen, arrazointzen, sentsua emaiten, loturen egiten ikasi behar dute.

Xede honen gauzatzeko denbora behar da, partaide guzien parte hartzea eskatzen du eta batez ere "egiten ari" garenaren azalpen zehatz-mehatza, hots, zein helburutara heldu behar garen, egin behar dugun bidean zein diren norberak egin beharreko urratsak.

Zerez "osatzen" da ikaslea "egiten ari" den hori ?

* Kontzeptuak eta gertakariak

* Prozedurak

* Jarrerak

1 - Kontzeptuak eta gertakariak :

Karikaturazko laburpena egiteko xederik gabe, bi motakoak dira

• Kontzeptuak : hitz abstraktuak dira. Hauei esker, kategoriak egin daitezke, gauzak eta gertakizunak sailka daitezke.

Kontzeptuek perzepzioak eta ezagutzak antolatzen dituzte.

Kontzeptu bat ez du egoera berezi batek sortzen, ez dago hari loturik.

*Adibidez : aditza kontzeptu bat da eta bederen bi irizpidek definitzen dute : denbora mar-
kak eta ekintzaren edo egoeraren aipamenak. Aditza, hemen edo nonnahi, aditz da.*

*Arnasketa kontzeptu bat da. Arnasketa izaki bizidun ororen ezaugarria da, organismo baten
barneko aldearen eta kanpokoaren arteko gas trukada da ; ugaztun eta xorientzat birrikak ;
larrua xixari eta igelentzat ; brankiak arraintzat, eta abar...*

*Hemengo edo nonnahiko organismo biziduna izanik ere, arnasketa beti irizpide berek definit-
zen dute.*

Bizi gareneko munduaren ulertzen laguntzen gaituzten kontzeptuak ugari dira.

Ikaslearentzat funtsezkoa da kontzeptu horien eraikitzea.

• Beste ezagutza mota batekoak dira gertakariak eta izenak.

*Adibidez : Baiona ez da kontzeptu bat, hiri izena da ; Ezpeletako merkatuan bildotsak egin duen
prezioa ez da kontzeptu bat, gertakari bat da, artzainen bizian eragin handia duena ; Milan A.C-
P.S.G futbol partida ez da kontzeptu bat, kirolzaleentzat garrantzitsua den gertakaria baizik.*

Ezagutzak honela zehaztu nahia adierazgarria da : kontzeptuek pentsamenduaren antolaketan parte hartzen dute, haiei esker loturak egiten dira, egintza zehatzetik, egoera berezitik urruntzeko ahala emaiten dute. Alabaina, kontzepturik ez balitz, hiriz, herriz edota hizkuntzaz aldatzean, berriz, aldioro, dena berri-
kasi beharrean izanen ginatke.

Ikas-bidea ikuspegi honetatik aztertzeak sentsua emaiten dio ikaslearen iharduera intelektualari.

Eman dezagun 1789ko Frantziako Iraultza aztertzen duela kolegioko ikastalde batek. Historia mailan duela 200 urte inguru iragan den gertakari garrantzitsua da : gertakari zehatzak daude, jende ospetsuak, kronologian hainbat gora-behera ere izan dira, eta abar... Ikasketa gisa honetan egin daiteke. Baina beste molde batean ere egin daiteke : erakasleak iraultza berez zer den adieraz dezake, irizpide zehatzak dituen kontzeptua izanki, eta ilustratzeko frantses Iraultza azaldu, benetan gertaturiko gertakari gisa. Adibide zehatzez lagundurik iraultzaren kontzeptua barneratu duten ikasleek ez dute zailtasun handirik izanen Txinako Iraultza kulturalaren edota Errusiako 1917ko Iraultzaren ikasketari ekiteko. Kontzeptu horren irizpide egonkorrek ikasleen analisia gidatzen dute : arrazoinak ? hastapenak ? klase sozialak, kulturalak eta abar... oposatuak ? Adibideekin segi daiteke nahi bezainbat.

2 - Prozedurak (egiten jakitea)

Egiten jakitea prozedura desberdinen ikastea da, hots, ikaslearen trebetasunen garatzea. (Bistan dena, kontzeptuak eta prozedurak uztartuak ageri dira errealitatean).

Badira prozedura sinpleak, teknikoak : testu-kaieraren erabiltzea, aitzurren erabiltzea edo teknologia arloko tresnak, eta abar...

Beste zenbait landuagoak dira, kognitiboak edo intelektualak deitzen direnak : 4 eragiketen egitea, narrazio edo deskripzio testu baten idaztea, labur-bildumen egitea, geografia karta baten irakurtzea, bi sarrerako taularen erabiltzen jakitea, gogoan hartzea eta abar...

Beste prozedura zenbaitek, buru-eragiketek adibidez, gogoetatzen, informazioaren aztertzen laguntzen gaituzte : erkatu, sailkatu, analisatu, sintetizatu, hipotesiak egin, ondorioak atera, eta abar...

Prozedura fisikoak ugari dira. bistan dena, ama-ikastolan funtsezko tokia egiten zaie, baina, ondoko urteetan ere landu eta garatzen segitzeakoak dira, duda izpirik gabe.

3 - Jarrerak (izaiten jakitea)

Norberarekin edo besteekin harremanetan sartzeko moldeak dira : nor bere buruarekiko konfidantza eta bere buruaz irudi baikorra izaitzea ; entzuteko gaitasuna, errespetua, elkartasuna, lankidetzarako gaitasuna, norberaren burua eta gaineratekoak maitatzekoa, eta abar...

VI - ESKOLATZEAREN ANTOLAKETA : ZIKLOAK

Ikasketa - zikloaren nozioak eta zikloen arteko artikulazio egokiak haur eta gazte bakoitzaren bila-kaera psikologiko eta fisiologikoari hobeki jarraitzeko parada emaiten dute. Zikloa eta adina bi nozio desberdin dira. Zikloak epea erran nahi du ; epe horrendako helburuak eta programak finkatu behar dira. Ondoren agertzen diren zikloak Seaskan erabiltzen ohi ditugunak dira. Hezkunde Nazionalaren erreformak alde batetik, eta guhauren praktikaz eginen dugun gogoetak, bestetik, noizpait beste antolaketa baten egi-tera erakar gaitzakete.

Lehen ikasketen zikloa : ama ikastola osoa hartzen du . Ama-ikastolako azken urtea ama-ikastolan gelditzen da eta ez litzateke egokia 1. urterako pentsatuak diren lanak ama-ikastolan bete nahi izaitaia.

Oinarritzko ikasketen zikloa : eskolatze hastapeneko 1. eta 2. urteak (CP, CE1).

Ikasketen sakontzeko zikloa : eskolatze hastapeneko 3 azken urteak (CE2, CM1, CM2)


Behatzeko zikloa : 6.a eta 5.a

Orientatzeko zikloa : 4. a eta 3. a

Lizeoa : - 2.a

- 1.a eta bururatzea edo terminala.

Zikloaren barnean ezin da urtea errepikatzea nehor behartu, helburuak zikloka finkatuak baitira. Ez da debeku finko bat, baina, ziklo barneko urte-errepikatzea kasu jakin batzuetan bakarrik erabili behar da.



VII - ANTOLAKETA DINAMIKOA

1 - Hezkuntza komunitatea

Hezkuntza komunitateko partaide dira ikasleak eta ikastolan berean edo harekin harremanetan ikasleen formakuntzan parte hartzen duten guziak. Ikastolako hezitzaile nagusiak burasoak eta profesionalak dira.

• Profesionalak :

Zuzendariak eta erakasleak dira, ikasleen eskola-iharduera guzien antolatzaileak.

Erakaslearen ahal eta gaitasun profesionalei dagokienez, eskolak emaiten dituzte, ikaslearen lan pertsonalari laguntza ekartzen diote, ebaluatzeko moldeak finkatzen eta gauzatzen dituzte. Ikas - gelako, zikloko eta ikastetxeko pedagogia-praktiken antolatzea haien ardurapean dago.

Erakaslearen lana bakarka aritzekoa bezainbat (metodo eta aintzinatez desberdinen artean hautatzea eta haien gauzatzea berari dagokio), pedagogia-taldeetan egitekoa da : zikloka, ikastolaka, ikastolen artekoa.

Horregatik, erakusten dituzten ikas-arloak eta hauei dagokien didaktika menperatzeaz gain, erakasleek ezagutzen barneratzeko prozesuak ezagutu behar dituzte ; taldeka lanean artzeko metodoak, bilkuren gidatzeko eta kudeatzekoak, ebaluatzekoak ; Seaskaren antolaketa eta ibil-moldea, frantses hezkuntza sistema arautzen duten erabakiak.

Funtsean, interes-gunea haurra bera izanik, erakaslea haren burasoekin solastuko da erregulariki. Erakasleak, ikas-bideaz eta komunitateko biziaren emaiten dituen informazioak osatuko eta borobilduko dira burasoek beren haurrez duten ezagutzari esker. Hezitzaile desberdinen arteko elkar-lana ikaslearen garapen orekatsuen bermeetarik bat da.

Administrazioko langileek, ama-ikastolako hezitzaile-laguntzaileek, monitore-hezitzaileek, begiraleek, Seaskako teknikari taldeak, ikastolaren funtzionamendua segurtatzen laguntzen dute; partaide desberdinen arteko lankidetzak, bakoitza bere eginkizunetan, harreraren eta ingurumenaren kalitatea eta segurtasuna bermatzen ditu.

Profesional horien gaitasunak baloratu behar dira haien lankidetzak eta atxikimendua zinez baliosak baitira hezkuntza komunitatearendako.

Alta bada, Seaskako profesionalak ez dira profesionalak bakarrik. Seaskako partaide ere badira eta elkarrearen instantzietan ordezkatuak daude. Eta, beraz, parte hartzen dute norabideen finkatzerakoan eta beharren zehazteko unean.

• Burasoak :

Burasoak dira Seaskako kide iraunkorrak. haien informazio eta adierazpen eskubideak oroz gainetik errespetatu behar dira. Eta lehen lehenik, arestian errana izan den bezala, beren haurrari doakion guzian, baina ere, Seaska sistemari doakion edozein mailatako gaia dela eta.

Haien zeregina eta eskuartzea premiatsuak dira Seaska Proiektua bizi eta aintzina dadin. Ikastolako, Seaskako instantzia erabakitzaileetan partzuer eta eragile dira.

Eta, beraz, erantzukizun handia dute elkarte osoaren norabide hautuei doakien gai guzietan.

Beharren analisisian eta haiei dagozkien proiektuen gauzatzean parte hartzen dute, ikastolan berean edota haren inguru hurbilean.

Ikastolen kudeantzan eta kultura sustapenean partaide dira.

Kanpaina desberdinetan esku hartzen dute : (Euskaraz Bizi ; Herri Urrats...).

Komunitate honen benetako funtzionamendua ahalbidetzen duten elkartzeko eta eztabadatzeko gune eta uneak badaude ikastoletan. Elkarrea gai izan da lanerako eta gogoetarako lan-tresnen sortzeko eta etorkizunean ere atxikiko ditu ; hauei esker, buraso, erakasle eta kanpoko eskuhartzailak sistemaren koherrentziaren berme dira eta Seaskaren Hezkuntza proiektua tokian tokiko errealitateari egokitzen ahal diote.

Honako hauek dira, besteak beste, atxiki eta garatu behar diren "lanabesak" :

Ikastolen Kontseilua : elkarrearen norabideak bozkatzeko. Ikastola bakoitzak, Biltzar Nagusian bildurik, gogoetatzen, eztabaidatzen, proposatzen du ; ikastoletako ordezkariak Ikastolen Kontseilura iragarazten dituzte proposamenak. Batzorde Erabakitzailea izendatzen du ; honen eginkizuna da bozkaturiko norabideen araberako deliberoen hartzea.

Lan-batzordeak : heziketa-batzordea, garapen-batzordea; harreman batzordea, finantza-batzordea, sozial-batzordea. Gogoetak eta proposamenak egiten dituzte ikastola guzietan doazkien gai berezi batzuek.

Tokian tokiko Eskola Proiektuak.

2 - Eskolako edo ikastetxeko proiektua :

Ikastola bakoitzak, Seaskaren hautu eta norabideak errespetatuz, bere proiektua egiten du. Honek, ikastolak errezibitzen dituen jatorri, hizkuntza, kultura edo gizarte maila desberdinetako ikasleen behar berezietan erantzuten die.


Pedagogia-taldeko kideek asmatzen dute zuzendariak koordinaturik eta ikastolaren biziarekin zer ikusia dutenekin eta haren funtzionamenduan partzuer direnekin.

Proiektuak jokoan ezartzen duena :

Pedagogian : eskola-erakundeak hobetzeko, pedagogia eragingarri eta aktiboaren bidez.

Heziketan : gaztea arta handiz hartzea ikastolan nahiz ikastolaz kanpo.

Instituzioetan : hezkuntza sistemako eragileen esku hartzeak koordinatu ; pedagogia-taldearen formakuntza beharrak agertarazi.



VIII - EBALUAKETA

Egintzaren gidatzeko lanabes da ebaluaketa, haren koherentzia eta zuzentzeko ahala segurtatzen dituen, egileak eta partalierrak elkartuz.

Ebaluatu behar dugun "objektua" "zera" edo "norbaiten iharduna" zehaztua delarik, ebaluaketaren helburua zehazki eta ulertzeko gisan azaltzen den pondutik, edozein sistema, proiektu, egintza, kurso... da ebaluagarri. Testu-inguruaren eta ebaluatu behar den objektuaren arabera, lanabesak eta aztertzekeo moldeak desberdinak izanen dira, hots, egoerari egokituak.

Edozein ebaluaketatan hiru urrats emaiten dira :

- **Ebaluaketa-diagnosia**, funtsezko unea da, orduan aztertzen baita hastapeneko egoera ; hor neurtzen ahal da hastapeneko egoeratik heldu nahi den helburura dagoen artea, egiteko gelditzen den bidea.

- **Ebaluaketa formatzailea**, egintza burutzen ari den artean egiten da :

- Ikas-bidean : ikasketaren abiatzean, erakasleak helburua eta ongi-heltzearen irizpideak aurkezten ditu ; horrela, ikasketa burutzen ari den artean, erakasleak eta ikasleak aintzinamendu nabarmenak eta egiteko gelditzen dena zedarriztatzen ahal dute. Ondorioz, erakasleak beste zenbait iharduera proposa ditzake, helburura heltzeko bide desberdinak. Ebaluaketa hau ikasketaren parte da eta ez zaio sekula notarik edo ohar ezkorrik erantsi behar.

- Proiektuetan : proiektuaren erredaktatzeak ahal bezain objektiboki zehaztu ahal izan du igurikatzen den emaitza edo aldaketa eta hartara heltzeko eman behar diren urratsak, egutegia, eta partzuer bakoitzaren parte hartze aktiboa. Maiz eta epe zehatzetan eginiko ebaluaketei esker neurtzen ahal da proiektua zein heinetan den, hastapenean sinkatu helburuekin erkatuz eta egin hautuak egokiak direnez. Hutsak eta lerratzeak zuzenduak eta baliatuak izan daitezke eta hobetzeko bideak ezarri.

- **Ebaluaketa normatiboa**, somatiboa edo kontrola azkenik heldu da. Ikasketa burutua dela, proiektua bururatua dela suposatzen da. Oraikoan neurtzen da, nota ezartzen da ; emaitzari buruzko, ekoizpen bukatuari buruzko iritzia emana da.

Ikasleen aintzinamenduak maiz ebaluatuak eta kontrolatuak dira.

Halere, ebaluaketa diagnosiari kasu emaitzak, ikaslearen partaidetzarekin ebaluaketa formatzailea usu egiteak beste izari bat emaiten diote gure hezitzaile lanari. Ez dezagun ahantz :

- Ikaslea dela ikasten duena ; inork ez dezakeela bere orde eginkizun hori bete.

- Gaztea dela bere nortasuna eta izaera eraikitzen dituen ; bere jitea lantzen duena ; bera dela autonomia afektibo, intelektual, sozial eta materiala erdiesteko "bide luzea" kurritzen duena. Eskolaren eginkizuna ez da, ezagutzen emaitze-hartze hutsera mugatzen ; aitzitik, gaztearen, "gizaki osoaren" formakuntzan ere parte hartzen du.

Ebaluaketa ez dadukagu kontrol hutstzat, *ikertze-egite* urrats gisa baizik

ibimolde hau ondoriotsua izan dakiguke :

- proiektu baten asmatze eta gauzatzerakoan,

- profesionalen egintza desberdinetan : lorpen eta hutsen agerrarazteak, lorturiko gaitasunak nabarmentzeaz bestalde, garatu beharrak ere seinalatzen baititu,

- elkartearen instantzien egintza desberdinetan.

Usu eginiko ebaluaketak laneko antolaketa dinamikoa, egile desberdinen funtzioak eta erantzukizunak argitzen ditu. Eginkizunak, helburuak argiki ezagutuak eta onartuak, egile bakoitzak bere tokia aurkitzen ahal du ustekabeko "ebaluaketa" edo "auzia" jasan beharrik izan gabe, bakoitza bere irizpideen, igurikapen implizitoen arabera ari baita.

Zein zedarri edo erakusle erabiliko dugu helburuetara doan bidearen markatzeko ? (linguistikoak, pedagogikoak, instituzionalak...) Horrek digu bermatuko :

- proiektu hau benetan gauzatuko dela (behar diren bitartekoak ezarriz : jendea, materiala, dirua),
- erakasleek ikas-gelako , eskolako ebaluaketa burutzeko beharrezko bitartekoak eskutan dituztela (formakuntza, material pedagogiko egokia...),
- orai finkatzen ditugun edukinak adin bakoitzarentzat egokiak direla,

elkartearen, giza komunitatearen funtzionamenduak :

- kide bakoitzaren informazio, adierazpen eta egintza eskubideak errespetatzen dituela,
- musutruk ari diren kideen eta profesionalen ekarpenen artean oreka atxikitzen duela.

IX - BURURAPENA

Hezkuntza Proiektuaren lehen atal honen burura heldu-eta, ez dezakegu erran gabe utzi : zer bidea egin dugun 25 urtez ! Zer hobekuntzak !

Baina, berehala gehitzen dugu : zenbat gelditzen zaigun oraino egiteko !

Dokumentu honetan finkatu diren norabide eta helburu orokorretan oinarrituz, ikastola bakoitzak, ondotik, bere proiektu berezia egin behar duenez gero, hura egin ahal izaiteko, gogoeta eta formakuntza aro batean sartzeta baitezpadako izanen zaigu.

Gogoetak, lehenik balore pertsonal, sozial, politiko, kultural eta abarrez... bete-beteak dauden zenbait "hitzen" definitzeko, hots : euskal nortasuna, autonomia, erantzule, herritar, eta abar... bezalako hitzak definitu eta azaldu ondoren, bideratzen ditugun praktiken erkatzeko, trukatzeko, eztabadatzeko, teorizatze.

ERANSKINAK

1 - SIADEKO-k 1987 eta 1991 urteetan egin ikerketa sozio-linguistikoaren labur bilduma

Euskal herrian egoera diglosikoa nagusitu da eta euskara minorizatu da. Iparraldeko testuinguruari hurbilagotik behatuz, eta SIADECO-K 87/91 urteetan egin ikerketa sozio-linguistikoaren arabera, %33,2 dira euskaraz mintzateko gaitasuna dutenak ; kanpoan, euskararen presentzia oraino apalagoa delarik, haatik. Egia da, bestalde, euskararen alderateko nahikundea ageri dela, beti ere arestian aipatu ikerketaren arabera, bat bederentzat eta sema-alabentzat euskaldun izate horren atxikitzeko. Egoera ez da sinplea eta kontraesanak ez dira eskas. Alde batetik, eskualdeen artean desberdintasun nabariak daude :

Lapurdi-kostan, adibidez, euskaraz mintzatzeko gaitasuna %17,6k dute ; Lapurdi-Barnean : %54,4ek ; Xuberoan : %54,7k ; Baxenafarroan, azkenik, %64,5 arte heltzen delarik. Bestetik, lurralderik euskaldunenak ez dira, baitezpada, euskararen alderat jarrera, iritzi eta balorapenik baikorrenak dituztenak. Faktore hauek, eta hauekin elkarrekintzan dauden kultura, ekonomia, sozial eta politika faktoreen eraginez, gure hizkuntzaren arazoa eta ikastolen errealitatea testuinguru berezi batean kokatzen dute. jadanik aipatuak diren eskualdeen arteko diferentziek, Iparraldea bitan banatzera garamatzate :

- Lehenik eta behin Kostaldea, Iparraldeko bizilagunetarik % 65-a, hauetarik % 17,6 direlarik euskal hiztunak. Kanpoan, euskararen presentzia hutsaren hurrena da. Euskal hiztunak erdal giroan barreiatuak daude.

- Barnealdean, aldiz, oro har, bizilagunen % 60 inguru euskaldunak dira. Haatik, aspaldian, familia transmisioak huts egiten duenez, euskarak etengabeko odolgaltzea jasaiten ari du.

Eskola, nahi ala ez, testuinguru batean kokatua baita, faktore guzi hauek kontutan hartzekoak izanen dira gure norabideen gogoetatzeko tenorean.

2 - Jose Maria Sanchez Carrion "Txepetx"en analisi sozio-linguistikoa

Sozio-linguistiko ikuspegi batetarik, hizkuntza baten bizitasuna tokiko hiztunek hizkuntza horri emaiten dioten funtzioen hedapenetik izartzen da. Funtzio hauek maila desberdinetan sailka daitezke ; hizkuntzaren ospe soziala erabiltzen diren funtzioen kopuruaren arabera emendatzen delarik.

1. eskala : idenditate hizkuntzaren funtzioa
2. eskala : familiako komunikazio funtzioa
3. eskala : herri barneko zenbait lan-esparrutan, erlazio hizkuntzaren funtzioa
4. eskala : tokian tokiko edo dialekto barneko komunikazio funtzioa
5. eskala : nazioko hizkuntzaren funtzioa
6. eskala : nazioz kanpoko kulturaren edo zibilizazio hizkuntzaren funtzioa
7. eskala : hizkuntza internazionalaren funtzioa

"Txepetx"-en tesiaren arabera, lehian diren hizkuntzen artean borroka sortzen da goraxeagoko mailaren hartzeko eta hori lehian den hizkuntzari funtzioak irabaziz lortzen da. Frantsesa ingelesarekin lehian dago hizkuntza internazional maila atxiki nahiz, eta postu hau galtzen duen ber, nazioz kanpoko zibilizazio hizkuntzaren posizioa zaindu beharrean izanen da ingelesaren aintzinean.

Gauza bera gertatzen zaio euskarari espagnolaren eta frantsesaren aintzinean. bai frantsesa eta bai española 6/7 eskalan kokatzen diren hizkuntzak dira, ospe sozial handikoak, beraz. Euskararen ospea, hiztunen perspektibatik beretik, 5. eskalatik 1. eraino aldatzen da, hau da hizkuntza nazional gisa hartua izaitetik infrahizkuntza gisa hartua izaiteraino. Kanpo baloraketaren aldetik ere gauza bera gertatzen da, eztabada 4. eta 5. eskalen artean geldituz.

"Txepetx"-ek azpimarratzen du : "gaurko hizkuntza egoeran edozein hizkuntz komunitatek bere superbibentziarako berez hizkuntza, hizkuntza nazionalaren mailan ipini behar du gutienez, hizkuntza eskusibo bezala, honek berarekin baitakar segituan hizkuntz tentsioa hurrengo eskalara igotzea".

Ela aintzinaxeago dio : "Euskarari dagokionez, garbi dagoela dirudi kanpotarren aldetik euskararen ikasketa sendotzen bada bakarrik (eta bertakoen kultur jabetzearekin batera, noski), orduan euskarak automatikoki indartu dezake bere posizioa hizkuntza nazional bezala. Ikasketa hau martxan jarri eta aurrera ez badao, erdarak euskara desplazatzen jarraituko du bere lurrean hizkuntza nazionalaren funtziotik, eta gero eta funtzio sozial mugatuagoetara baztertuko da".

Tesi honek dioenaren arabera, eskolaren euskalduntze planteamenduak helburu bezala ukan beharko du euskararen egoera linguistikoaren hobetzea, hizkuntza nazionalaren statusa ere bultzatuz, euskal lurraldearen esparruan beharrezkoa eginez, eta euskarazko sorkuntza literarioak eta bestelakoak, pentsamenduaren elaborazio eta argipenak butzatuz, kanpoan kultur hizkuntza bezala ezagutua izan dadin.

EUSKAL ESKOLAREN DISEINUA

(Ikastolen Konfederakundearen testua)

IZAERA

Eskolarizazioa gizarte batek hezkuntza sisteman ipintzen dituen ideien eta itxaropenen forma instituzionalizatua da : ideiak eta itxaropenak gizabanakoaren ahalmenen garapenari lotuak eta era berean gizartea bera hobetzeko eta babesteko. Era honetan esan ohi da eskola bat kalitatezkoa dela espektatiba eta behar sozial eta indibidualen artean eta eskolak ematen duen erantzunaren artean oreka bat dagoenean.

Herri bat osatzen dugun eta izaten jarraitu nahi dugun neurrian bateratzen gaituzten guztion uztarri izango diren ideia eta itxaropenak elkarrekin izan behar ditugu. Euskal Herriaren izaeraren funtsezko ezaugarri bat euskalduntasuna da. Horregatik :

- Euskal eskola entitate euskaldun bat bezala eskaintzen da euskararen eta euskal kulturaren transmisio, garapen eta potentziazioarekin konpremetituz.

Egia da denek ez dituztela behar berdinak sentitzen, ezta ere espektatiba berdinak edukitzen eskolari buruz. Desberdintasuna zatiketa eta haustura iturri izan ordez, berrikuntzaren eta hobekuntzaren bultzagarri izan dadin, pluraltasunezko, demokraziazko eta autonomiazko jarrerak ezinbestekoak dira eskola barruan. Horregatik :

- Euskal Eskola erakunde pluralista bezala aurkezten da; Euskal Herrian finkaturik dauden ideia, portaera sozial, politiko, filosofiko eta erlijoso desberdinen elkarbizitzarekiko errespetu osoarekin.

- Oinarrizko errepetu horren dimentsioetako bat, bere euskarria izateaz gainera, Euskal eskolak beretzat egiten duen hautabide demokratikoa da. Gurasoek, irakasleek, pertsonal laguntzaileek, ikasleek, administrazioako ordezkariak, denek parte hartu behar dute haren gestioan eta aktiboki lagundu berorren funtzionamenduan.

Autonomiarik ez balego, menpekotasuna eta uniformetasuna baizik, pluralismo eta demokrazia

kontzeptuak hitz hutsak lirateke. Euskal Eskolak plurala eta demokratikoa izan nahi duelako, autonomian zentratutako eskola eredu bat izan nahi du, hau da, konpetentzi zabalak eta erabakiak hartzeko ahalmena izango duen eskola. Era berean, autonomia kontzeptua ez denez mugagabea, autonomia eta kontrol sozia- laren kontzeptuak bata bestearen osagarri bezala ulertzen dira.

HELBURUAK

Hauek dira, gizabanakoari begira, Euskal eskolak lortu nahi dituen helburuak :

Ikasleek, herrialde eta herri guztietara zabalik dagoen Euskal Herrian txertaturiko giza komunitate batean garatuko dituzte beren gaitasunak.

Ikasleek, beren ezagutzen doikuntza eta armonia trebetasun eta gaitasunak, adin desberdinetara egokiturik eta garapen intelektual, fisiko, estetiko, izpiritual, emozional eta moralari dagozkionak lortuko dituzte, horrela bizitzaz gozatzeko eta pertsonak bezala beren erantzunkizunak hartzeko gai izan daitezen.

Ikasleak, euskara ongi menderatuz eta euskara eta euskal kulturaren transmisio, garapen eta potentziazioan jarrera aktibo bat hartzera eramango dituen formazio euskaldun batekin irtengo dira derrigorrezko irakaskuntzatik.

Ikasleek, beren ingurunera eta euskal kulturara egokitzen ikasiko dute, baina egokitzapen hori ez da konformista izango, aktiboa baizik, euskal komunitate justu eta errespetutsuago, libre eta errespetatuago baten eraikuntzan aktiboki lan egitera orientatua egongo da eta.

EGINBIDEAK

Honako ekinbide hauei jarraituko die Euskal Eskolak :

Euskara lehen hizkuntza izango da irakaskuntzako komunikazio-bide eta behikulu bezala

Euskal Herriko errealitate lurraldetar, historiko, sozial, politiko, ekonomiko eta kulturalareriko barne- nekidetasuna izango du.

Haurtzaroko heldugabezia eta menpekotasunetik abiatuz, gaztaroko heldutasun eta autonomia- rantz eboluzionatzeko, ikasleek erabakiak hartzeko ahalmena eta erabaki horien erantzule izate- ko jarrerak bultzatuko dira.

Eskola behar indibidualetara egokitzea, haur guzrien beharretara, baina batez ere hezkuntza premia bereziak dituztenetara.

Ikasleen gaitasun, ezagupen eta trebetasun mailen garapena estimulatuz zuzenduriko ikasketa eta irakaskuntza bat susta dezakeen pedagogia aktibo eta aldi berean pertsonalizatu eta komunitario baten aplikazioa.

Giza eta etika baloreak landuko dituen formazioa.

Eskolaren gaitasuna ikasleen arteko desberdintasunak (sozialak, kulturalak, sexuarenak...) kon- pentsatzeko, ez daitezen izan diskriminazioaren iturri.

Eskolaren eta bizitza laboralaren arteko integrazioa lortzeko bideak eskaini eta orientazio pertso- nala eta profesionala ziurtatu.

Berrikuntza, esperimentazio eta ikerketa giroa, irakaskuntzaren prozesu guztiak etengabeko hobe- kuntza bidean egon daitezen.

Ondorengo ekintza estrukturalok izango dira kontutan :

Antolamendua, izaera akademiko, kultural edo kirolezko ekintza pedagogigoetan, hezkuntza komunitateko kide guztien partaidetza bideratuz.

Koordinazioa irakasle eta programei dagokienez, nahiz horizontala maila edo ziklo baten barruan, nahiz bertikala mailen eta zikloen artean, eta baita hezkuntza komunitateko kideen artean ere

Zuzendaritza, irakasleak eta beren klaustroa, eginkizun lagungarriak eta osagarriak egiten dituzten pertsonak eta lan-talde desberdinetan sartuak dauden gurasoak koordinatuz, animatuz eta motibatuz.

Etengabeko ebaluazioa, prozesu guztiaren hobekuntza bideratzeko.

Aipatu ditugun eginbide guzti horiek elkar sendotu baino ez dute egiten, horrela hezkuntza komunitatea osatzen duten guztien artean errespetu demokratikozko giro bat sortuz.

BALIABIDEAK

Eskolak, hezkuntza komunitatea osatzen duten pertsonen dinamismoarekin identifikatzen du bere bizia.

Eta hezkuntza komunitatea ikasleek, gurasoek, irakasleek, pertsonal ez-irakasleak, administrazio lokalaren ordezkariak eta, bere kasuan, bazkide lankideek eratzen dute, eta guzti horiek baliabide material eta organizatibo batzuk erabiliz, bere dinamismoa jartzen dute ekintzan, ikasleengan, hau da, hezkuntza komunitateko kide bereziki esanguratsuengan, era nabari batean eragiten duen lanbide hezigarri eta euskaldun baten zerbitzuko.

Batzarre Orokorrak hezkuntza komunitateko kide guztiak besarkatzen ditu eta aginte eta erabaki-organo gorena da : berarengandik jaulkitzen zaizkie ahalmen guztiak, delegazio bidez, gainerako gestio eta funtzionamendurako organoei.

Aspektu hauek erantzun egoki bat hartzeko eta etengabeko ajustean egoteko garantiarik onena zera da, hezkuntza komunitateko partaide guztiek benetan parte hartzea eta eskolaren gestioan inplikaturia egoitea, autonomia eta erabakiak hartzeko ahalmena edukiz.

Aipatu ditugun eginbideak gauzatu ahal izateko giza eta material baliabideak beharrezkoak dira; pertsonal goaren eta bere formazioari buruzko eritziak eta eskolaren finantziaketari buruzkoak ondorengo kapituluetan jasotzen dira.

HEZKUNTZA PROIEKTUA

Aipatu ditugun helburu, eta eginbideok gauzatzeko proiektu kurrikulara, hezkuntza komunitatearen antolakuntza eta koordinazio erak eta eskolak dituen baliabideak, elementu guzti horiek elkartuz, eskola bakoitzak eratu beharko du bere hezkuntza proiektu propioa.

Hezkuntza proiektua, beraz "Izaera" atal honetan era ideal eta zabalean jaso diren oinarri eta eskola bakoitzaren zirkunstantzia aldagarrien (ikaslegoaren osaera sozio-ekonomikoa, ingurune geografiko, presio linguistiko, etabar) arteko kontrastearen fruitu izango da.

Hezkuntza proiektu hori egiterakoan atentzio berezia jarriko da eskolak beren lehen helburua lortzeko, hau da, euskara eta euskal kulturaren transmisioa, garapena eta potentziazioa lortzeko, beharrezko eta ezinbesteko laguntzak edo baliabideak ziurtatzeko orduan, helburu horien lorpena gero nekezago izan ez dadin.

La meilleure garantie de la mise en pratique constante des aspects signalés est ici la participation active de tous les membres de la communauté éducative à l'organisation et à la gestion de l'école, à condition qu'il jouissent de l'autonomie et des compétences nécessaires pour prendre des décisions.

Projet éducatif

Chaque école définira son propre projet éducatif en se servant des aspects recueillis dans ce chapitre consacré au caractère de l'établissement, et d'autres éléments qu'il faudra intégrer (objectifs, lignes d'action, organisation et coordination des membres de la communauté éducative, ressources...)

Le projet éducatif sera donc le fruit du contraste existant entre ce que l'on aura décrit comme le caractère propre à l'établissement, sous une forme un peu idéale et générale, et les circonstances variables du dit établissement, à savoir la composition socio-économique de l'ensemble des élèves, l'environnement géographique, la pression linguistique...

Lors de la rédaction du dit projet, on prendra un soin tout particulier pour déterminer les soutiens et les ressources nécessaires et indispensables dont l'école doit se doter pour que l'objectif primordial, à savoir la transmission, l'évolution et le renforcement de l'euskara et de la culture basque ne soit pas difficile à atteindre.